

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y DE LA
EDUCACIÓN**

GIZA, GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**Grado en Trabajo Social
Gizarte Laneko Gradua**

**Trabajo Fin de Grado
Gradu Bukaerako Lana**

Gizarte eta familia sareek osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duten eragin soziala

Ikaslea: Ane Santamaria Ibañez

Tutor/Tutorea: Iñaki Sagardoy Leuza

Departamento/Saila: Soziologia eta Gizarte

Lana saila

Campo/Arloa: Gizarte Lana eta Osasun Mentala

Hilabetea, urtea: Maiatza, 2024

Gizarte sareek osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duen eragin soziala

LABURPENA

Azken urteotan osasun mentalaren alorrak gora egin duela gizartean duen garrantziari eta ikusgarritasunari dagokienez. Baina, pertsona horiek oraindik ere hainbat oztopotan gainditu behar dute aurrera egin ahal izateko eta bai gizarte-harremanak eta familia-laguntzak mantentzeko. Oztopo horiek izan daitezke gaur egun oraindik oso presente dagoen estigma soziala, ulermen falta edo komunitatetan integrazio falta, adibidez.

Lan honen helburu nagusia da buru-nahaste larria duten pertsonen familia-eremuan zein familiatik kanpo dituzten laguntza-sareak ezagutzea eta haien ongizatean duten eragin sozialak ikustea. Ikerketa hau burutu ahal izateko, metodologia kualitatiboa erabili da. Erdi egituraturako elkarrizketak egin zaizkie buru nahasmendu larria duten sei pertsonari eta osasun mentalaren esparruan bost urte baino gehiago daramatzan gizarte-langile bati. Ikerketaren, ondorio nagusia da familia- eta gizarte-laguntzako sareek eragin positiboa dutela pertsona horien ongizate sozialean, eta, gainera, proportzio-iturriak direla komunitatean integratzeko.

Hitz gakoak : Osasun mentala; Estigma; Gizarte sareak; Familia; Isolamendu soziala

RESUMEN

En los últimos años el ámbito de la salud mental ha crecido en importancia y visibilidad social. Pero, estas personas se siguen teniendo que hacer frente a diferentes trabas para poder avanzar y mantener las relaciones sociales y los apoyos familiares. Estas trabas pueden ser desde el estigma social que hoy en día sigue muy presente, la falta de entendimiento y comprensión o la falta de integración, por ejemplo.

El objetivo principal de este trabajo es conocer las diferentes redes de apoyo que tienen las personas con trastorno mental grave tanto en el ámbito familiar como fuera de él y ver el impacto que tienen en su bienestar social. Para poder llevar acabo esta investigación, se ha utilizado una la metodología cualitativa. Se han realizado entrevistas semi estructuradas a seis personas con trastorno mental grave y a una trabajadora social que lleva más de cinco años en el ámbito de la salud mental. La conclusión principal de la investigación es destacar que las redes de apoyo familiares y sociales tienen un impacto positivo en el bienestar general de estas personas y además son fuentes que proporcionan una mayor integración en la comunidad.

Palabras clave : Salud mental; Estigma; Relaciones sociales; Familia; Aislamiento social

Abstract

In recent years the field of mental health has grown in importance and social visibility. However, these people still must overcome different obstacles to move forward and maintain social relationships and family support. These obstacles can range from the social stigma that is still very present today, to the lack of understanding and comprehension or the lack of integration, for example.

The main objective of this work is to know the different support of networks that people with severe mental disorders have both within and outside the family environment and to see the impact they have on their social well-being. To carry out this research, qualitative methodology has been used. Semi-structured interviews were conducted with six people with severe mental disorders and a social worker who has been working in the field of mental health for more than five years. The main conclusion is to highlight that family and social support networks have a positive impact on the overall well-being of these people and are also sources that provide greater integration into the community.

Key words: Mental health; Stigma; Social relationships; Family; Social isolation

1.INTRODUCCIÓN.....	5
1.1. HELBURUAK:.....	6
1.2. HIPOTESIAK	7
2.MARKO TEORIKOA	8
2.1. ZAHARTZE PROZESUAREN IMAGINARIO SOZIALAK.....	8
2.2. ZAHARTZE ARRAKASTATSUA: TEORIA BAT	8
2.3. GAIXOTASUN MENTALAREN ESTIGMATIZAZIOA.....	9
2.4. GIZARTE LANA OSASUN MENTALEAN	10
2.5. OSASUN MENTALA ETA ALDAGAI SOZIALAK	13
2.5.1. Depresioa	15
2.6. BIZI KALITATEA ETA GAIXOTASUNA	15
2.7.FAMILIA, ZAINZTA, GAIXOTASUNA ETA GIZARTE LANEKO ESKU HARTZEAK	18
3.METODOLOGIA.....	21
4.EMAITZEN ANALISIA.....	24
4.1. FAMILIA BARRUAN DAUDEN SOSTENGUAK	24
4.1.1. Emaztearen eta senarraren sostengua	24
4.1.2. Seme alaben sostengua	27
4.1.3. Anai arreben sostengua	31
4.1.4. Gurasoen sostengua.....	33
4.2. ZAINZTA INFORMALA ETA GAINKARGA FAMILIARRA	35
4.3. FAMILIA KANPOKO SOSTENGUAK	39
4.3.1. Akonpainamendurako eta errehabilitazio psikosozialeko errekurtsoak	39
4.3.2. Figura profesionalak eta eguneko ospitalea	44
4.3.3. Haurtzaroan izandako esperientzia negatiboak.....	45
4.3.4. Gaur egungo ondorio sozialak	46
5. CONCLUSIONES	52
6. BIBLIOGRAFIA.....	54
ERANSKINAK	58
I. Eranskina. Gizarte lanetik abiatuta esku hartze ideak.	58
II. Eranskina. Buru nahasmendu mental larria duten pertsonen elkarrizketen gidoia.	59
III. Eranskina. Psikogeriatrikoko gizarte langilearen elkarrizketan erabilitako gidoia.....	61

1. INTRODUCCIÓN

Este trabajo de fin de grado de la carrera de trabajo social va a tratar sobre los apoyos tanto familiares como fuera de la familia que tienen las personas con trastorno mental grave y así analizar las consecuencias que tienen en su bienestar social. Para poder llevarlo a cabo, me voy a apoyar por los distintos profesionales, usuarios o familias de los centros del hospital de día psicogeriátrico situado en San Fco. Javier y el hospital de día I situado en el pabellón blanco del concejo hospitalario.

Este trabajo de fin de grado se centra en el análisis crítico de las causas de las enfermedades mentales en los adultos mayores, incluida la evaluación del impacto social en las personas afectadas. Para lograr este objetivo, se integrarán conceptos provenientes del trabajo social que se han conocido en los cuatro años de estudio del grado universitario. En estos equipos multidisciplinares propios de los centros la figura del trabajador social es muy importante, ya que el entorno social y comunitario de una persona es clave para la intervención de la enfermedad. Como profesionales, es importante entender la estigmatización, discriminación y necesidad de redes de apoyo tanto familiares como comunitarias que tienen y presentan estas personas con trastorno mental grave. Es importante hacer esa comprensión para poder ofrecer una intervención integral a estas personas y adaptar los recursos para fomentar la calidad de vida de estas personas. Por lo tanto, como labor que tienen las personas profesionales de la disciplina del trabajo social, es importante también analizar los diferentes puntos de vista que puede haber dentro de la profesión y conocer realmente la intervención que pueda tener esta figura en el ámbito de la salud mental.

Se analizarán las distintas redes de apoyo de estas personas, así como el entorno social y comunitario en el que están, para así poder ver si esos factores han tenido consecuencia en su entorno social. Además, otro de los objetivos serán analizar el aislamiento social que puedan sufrir estas personas con diagnóstico en salud mental.

Para poder llevar adelante este trabajo, se utilizará la metodología cualitativa mediante entrevistas. Creo que es importante que sea de esta manera darles la oportunidad a estas personas para expresarse y que cuenten sus propias vivencias personales.

Haciendo referencia a la Agenda de 2030 de desarrollo sostenible y ya que en análisis

de este trabajo de fin de grado se centra en el impacto que tienen las relaciones sociales y los apoyos familiares en el entorno social de las personas con trastorno mental grave, varios de los objetivos de la Agenda se adaptan a este objetivo del trabajo. En primer lugar, el objetivo de salud y bienestar. Es importante ya que este objetivo se centra en garantizar una vida saludable y promover el bienestar incluida en la salud mental. Además, el apoyo social y familiar es crucial para la promoción del bienestar. El otro objetivo que mencionar es el objetivo de reducción de desigualdades, ya que estas personas con enfermedad mental grave a menudo se enfrentan a la estigmatización y discriminación, lo que limita el acceso a servicios y además limita su apoyo social.

La pregunta de investigación principal de este trabajo de fin de grado es la siguiente. Como los apoyos familiares y las relaciones sociales de las personas que están en el hospital de día psiquiátrico y psicogeriátrico y diagnosticadas de trastorno mental grave, afectan a su bienestar en el ámbito social.

1.1. HELBURUAK:

Helburu orokorra:

- Gizarte sareak eta sare familiarrak psikogeriatriakoan eta eguneko ospitale psikiatrikoan dauden pertsonen ongizatean daukan eragina ezagutzea eta aztertzea. Gainera, gaixotasuna ekartzen dituen ondorio sozialen azterketa egitea.

Helburu espezifikoak:

- Gizarte sare sendo bat izateak osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duen eragina aztertzea.
- Gizarte sarea ez izateak osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duen eragina aztertzea.
- Ospitale psikogeriatriakoan eta eguneko ospitale psikiatrikoan egoteak gizarte isolamendua eragin dezakeen edo ez aztertzea.
- Osasun mental arazoak dituzten pertsonen familian daukan eragina ebaluatzea ikuspegi sozial batetik.
- Osasun mentala ze ondorio sozial izan duen psikogeriatriakoan eta eguneko ospitalea psikiatrikoan dauden pertsonetan aztertzea.

1.2. HIPOTESIAK

Hipotesi orokorra:

- Gizarte sare sendo bat izateak eta familiaren laguntza izateak osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean ondorio positiboak ditu. Eta gaixotasun mentalak isolamendu soziala dakar ondorio nagusi bezala.

Hipotesi espezifikoak:

- Depresioa izango da gaixotasun nabariena proiektuan parte hartuko duten pertsonetan.
- Egoera sozialak gaixotasunean eta osasunean du ondorio. Faktore ekonomikoak, sozialak, genetikoak edo psikologikoak adibidez.
- Psikogeriatrikoan eta eguneko ospitale psikiatrikoan dauden pertsonak isolamendu sozial egoeran daude.
- Gaixotasun mentala duten pertsonen zaintza lana emakumeak egiten dute.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. ZAHARTZE PROZESUAREN IMAGINARIO SOZIALAK

Garrantzitsua da termino batzuk azaltzea lanaren kontestu teoriko bat egiten. Horretarako, beharrezkoa da gizarte lanak hirugarren adineko pertsonetan duen garrantzia eta esku hartzea definitzea. Pertsona baten adina ez dago bakarrik faktore biologikoetatik finkatuta. Faktore hauek historian zehar egon dira finkatuta baina gaur egun kontuan hartu behar ditugu gizarte faktoreak, hauek ere pertsonaren garapenean ondorioak dituztelako.

Adin soziala, pertsona bizitzan zehar bizi izan dituen funtzioek eta gizartean izan duen paperarekin lotuta dago, faktore hauek baldintzatzen dute zahartzea. Horiek krisiekin, garapen zereginekin eta adin kronologikoarekin erlazionatuta dago. Terminu hau erloju sozialaren bidez neurtu daiteke (Guerrini, 2010).

Honekin lotuta, aurreiritzi zabalduenetariko bat da hirugarren adineko pertsonak gaixo edo ezinduak direla. Gaixotasunengatik edo adinaren ondorioz denbora asko daramatela ohean, bai koordinazio psikomotoren eskasa dutelako edo infekzioak erraz garatzen dutelako adibidez. Ere, proportzio handi bat ospitaleratuta dagoela egoitza geriatrikoetan bizi delako. Zahar eta gaixo hitzen arteko sinonimia ezartzen ari da profezia auto prediktibo bat bezala jokatzeko duena. Baina, zahartzaroaren eta gaixotasunaren arteko lotura hori faltsua dela argi dago (Salavarezza, 2002).

Urruntasun soziala zahartzaroan gertatu daiteke eta hori desatxikimendu indibidualaren ondorio gisa ikusi daiteke, gizarteak eskaintzen duen aukera faltarekin eta zaharren ekarpenekiko duen interes eskasarekin lotuta. Sareei erreferentzia emanez, lotura motaren arabera, sare gehienak familiakoek eta lagunek osatzen dute; lan, ikasketa, komunitate edo osasun harremanak desagertzen edo ohikoak ez izaten (Arias & Polizzi, 2010).

2.2. ZAHARTZE ARRAKASTATSUA: TEORIA BAT

Zahartzeari buruz hitz egiteko eta finkatzeko, garrantzitsua da termino horren inguruko teoria nagusienak azaltzea. Ikusten dugu zahartzearen kontzeptua arau tipikoaren arabera orientatzen dela, ala nola gaixotasun kronikorik gabeko zahartzearen prozesua, hori zahartzea patologikoaren kontrakoa izango balitzateke. Hori irizpide subjektiboa da, ala nola banakoen premien eta egungo garapenearen testuinguruen mende dago. Definizio hori aplikatzen zaiona

halaber, nolabaiteko osasun maila objektibo beten eta helduak daraman bizitzarekiko duen gogobetetze subjektiboren arteko harremanari. “Zahartze arrakastatsua” zehaztugabeegia dagoen terminoa izan daiteke, arrakasta definitzea egoera indibidualekin zer ikusia daukalako, bai gaixotasunekin, egoera sozialarekin edo familia harremanekin adibidez (Cobo & María, 2009).

Zahartze arrakastatsiak gizaki asmoarekin lotuta dago. Ondo zahartu nahi dugu, minik edo sufrimendurik gabe; normalean, mirespenez begiraten dugu urteak igarotzen dituztenei, zaindutako ongizatea, errealizazio pertsonala, bizitasuna eta indarra erakusteko. Zientzia eta asmo sozialak lotuta daude eta alde horretatik, ahalegin teoriko eta zientifiko asko egon dira zahartze arrakastatsua zer den identifikatzeko eta ezartzeko (Brigeiro, 2005).

2.3. GAIXOTASUN MENTALAREN ESTIGMATIZAZIOA

Pertsona bakoitza gizarteratze prozesu bat dakar berarekin, eta prozesu horren bidez ezartzen dira pertsonak kokatzeko kategoriak, aurrez ezarritako atributuak esleituz, benetan ezagutu aurretik. Ezaugarri horiek osatzen dute beren «nortasun soziala». Mekanismo horrek interakzio egoerak errazten ditu; izan ere, aukera ematen du harremanetan jartzen garen pertsonak azkar sailkatzeko, alde aurretik barneratu ditugun kanpo ezaugarri batzuen arabera, pertsona mota jakin batenak balira bezala. Ezaugarri horietatik abiatuta, komunikazioa ezar dezakegu ahalegin handirik egin gabe, modu nahiko automatikoan. Identifikatzen ditugun kategorien arabera, badakigu zer itxaropen izan ditzakegun pertsona jakin horri dagokionez. Estigmatizazioa jasotzen duten pertsonak prozesu dual batean parte hartzen dute: alde batetik, bere nortasunak estigman daudenak baino askoz ezaugarri eta nortasun ezaugarri gehiago hartzen dituela jabetzen da, eta, bestetik, sozializazio prozesuaren ondorioz, talde sozial nagusiak dituen sinesmen berak barneratuta ditu bere buruarekiko. Horregatik, onartzen du gizartean ez dela baldintza berdinetan onartzen, eta onartzen du «desberdina» dela. Hori dela eta, etengabeko alerta jarrera du ezaugarri estigmatizatzailearen aurrean; izan ere, ezaugarri nagusi bihurtzen da bere nortasunean eta identitatearen zati batean hura ezkutatzeko edo zuzentzeko ahaleginetan (Romero, 2010).

Buru nahaste partikularraren arabera, haluzinazio, eldarnioak, antsietatea edo gogoaldartearen aldaketak jasan ditzakete. Sintoma horiek zaila egin dakioke gaixotasun mentala duen norbaiti lan egitea, independentea bizitzea edo bizi-kalitate egokia lortzea. Baina gaixotasun mentalak, gaixotasunaren sintometatik eratorritako zailtasunetara ez ezik,

Gizarte sareek osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duen eragin soziala

desabantailatara ere daramatza gizartearen erreakzioen bidez, gizarteak buruko nahasmenduei buruz dituen gaizki ulertuek estigma eragiten baitute (Arnaiz & Uriarte, 2006).

Estigmari dagokionez, bi efektu mota nagusi bereiz ditzakegu: diskriminazio publiko eta estrukturalaren ondorioz zuzenean sortutakoak, eta horien auto-estigmatizaziotik eratorritakoak. Ondorio zuzenak kontuan hartzen baditugu, agerian geratzen da estigmak oztopo gisa jokatzen duela eskubideak baliatzean eta zerbitzuak eskuratzean. Horrela, egiatzen da zuzeneko diskriminazioa dagoela etxebizitza, enplegua eta gizarte-harreman esanguratsuen artean: bikotea, lagunak, gizarte sareak eta abar. Eta, beti hain agerikoak ez diren arren, pertsona horientzako osasun- eta gizarte-zerbitzuetan legezko diskriminazioak ere badaude (egiturazko estigma). Baina, horrez gain, gutxiespena dago zerbitzu orokorretako arretan, hala nola osasun eta gizarte zerbitzuetan, hezkuntza zerbitzuetan, enplegu zerbitzuetan eta abarretan.

Baina estigmak ez die buruko gaixoei bakarrik eragiten. Familiengan eta, zehazkiago, familiako zaintzaileengan ere ondorio negatiboak ikusten dira. Hauek, gaixotasunaren zaintzaileek eragindako estresa jasateaz gain, gizartetik datozen estigma eta debaluazioari ere aurre egiten diote, euren baitan auto-estigma bat sortuz, bere bizi-kalitatea murrizten duena (Baena & Navarro (tutor), 2018).

Bizi-itxaropena handitzeak aukerak ematen dizkio heldu nagusien sektoreari, eta, beraz, lehen ikusezina zen biztanleria segmentu horri erreparatu behar zaio. Hala ere, biztanleria orokorrean, 60 urtetik gorako sektoreak egoera jakin batzuk bizi ditu, eta horietara egokitu behar dira. Helduek arreta behar dutela eta bizi duten errealitatearekin bat datozen baldintzak eskatzen dituztela gaur egun zabaldua dagoen pentsamendua litzateke. Baina egunerokotasuneko elkarrekintzari dagokionez, talde horren esperientziak edo gainerako biztanleek nola hautematen dituzten bezalako galderak sektore horrekiko kezka dira. Zahartzarora hainbat ikuspuntutatik landu daitekeen gaia da; alde batetik, erretiroa hartzeko eskubideari buruzko arauak ematen dituzten erakundeetatik (adin soziala); bestetik, gorputzaren narriadura bizi duen pertsonatik (adin biologikoa eta kronologikoa), edo etapa hori bizitzen ari denari begiratzen dion gaiaren ikuspegitik (Arauz, 2014).

2.4. GIZARTE LANA OSASUN MENTALEAN

Osasun mentala pertsonen osasun integralaren parte da, eta bizi baldintzekin, garapen

afektibo, emozional, intelektual eta lan eremuan bat datozen aukerekin lotuta dago. Beraz, osasun mentalaren ikuspegia gaixotasun mentalarena eta haren tratamendu klinikoarena baino askoz zabalagoa da, eta osasun mentaleko gizarte lana taldeak errehabilitazioan eta gizarteratzean lan egiten du, osasunaren sustapena eta prebentzioa alde batera utzi gabe. Praktikan, osasun mentaleko gizarte langileak beste profesional batzuekin batera esku hartzen du (psikiatrak, psikologoak, erizainak, terapeuta okupazionalak...) diziplina desberdinak integratzen saiatuz arreta oso eta integral bat emateko (Trullenque & María, 2010).

Gizarte laneko profesionala erakundeak ahalbidetzen dizkion parametroen barruan beteko du bere rola. Eremu horretan, premia edo esakera espezifiko batzuk detektatzen dira, hala nola hezkuntza, elikadura, gizarte laguntza, ekonomia edo lana bezteak beste. Kasu gehienetan funtsezkoa da errehabilitazio sozialaren kontzeptua eta hori esku hartzean bermatzea. Egoera bakoitza kontuan hartzen duten lan babestuetarako sarbidea bermatzea, gizarteratzeko espazioak sustatzea, baliabideak eta sareak hurbiltzea. Beharrezkoa da haien eskubideen babesa eta defentsa bermatzea eta bai pertsonarekin eta bere familia edo inguruarekin lan egitea. Behar guzti horiek eta eskaera horiek ikuspegi komunitario bat behar dute esku hartzeko. Adibidez, pertsona horiek dituzten estigmatizazioaren aurka borrokatzeko mekanismoak ezarri eta indartu behar dira haien gizarteratzea sustatzeko (Benítez Valdez, 2021).

Gaixotasun mentala duten pertsonen ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko, gizarte langileak osasun mentala sustatzeko jarduerak egin behar ditu, komunitatearen barruan babes-faktoreak areagotuz:

- Gizarteratzea: haien komunitatean parte hartzeko trebetasunak eta baliabideak izatea, horrela haien gizarte sarea handitzeko aukera izan ahal daiteke haien integrazioa sustatzen. Estigmatizazioak eta aurreiritziak badaudela ere onartu behar dute profesionalak, eta beraiantzako moldatuta edo haiek seguru sentitzeko errekursoak eta espazioak badaude.
- Gizarte-trebetasunak: Gainerakoekin modu osasuntsu batean harremantzeko trebetasunak garatzea, hala nola, gatazkak konpontzea, aktiboki entzuten ikastea eta gainerako pertsonak ulertzen ikastea ere.
- Arazoak konpontzeko trebetasunak: Harreman osasuntsuak izatea oso garrantzitsua da gizarte sarea handitu ahal izateko.
- Gizarte sarea: profesional gisa, bakoitzaren beharretarako eta gaitasunetarako egokiak diren baliabide komunitarioak bilatzea, laguntza sarea zabaldu ahal izateko. (Navarro-

Lorenzo, 2014).

Funtzio gehienak lehen mailako arretako, gizarte zerbitzuekin, irabazi asmorik gabeko erakundeekin edo gaixotasun mentala dituzten pertsonetara bideratutako zerbitzuekin profesionalekin batera egingo dira, beti ere pazienteak dituen beharretara egokituta eta bere iritzia kontuan hartuta, profesional gisa egiten ditugun funtzio guztietan bere baimena izatea ere beharrezkoa da.

Pazientearen alderdi sozialak artatzean eta zaintzean datza: horien artean, lanera eta familiara egokitzea nabarmentzen da. Alderdi horiek oso maiz eragiten diote gaixotasun mentalari, eta eragina dute gaixotasun mentalaren bilakaeran. Adibide on bat izan liteke gaixoa berriz gaixotzen denean, bere krisian justifikaziorik gabe lana uzten duenean, baita hurbilen dituen senideei eraso egiten dienean. Pazienteak egokitzeko zailtasun txikiak ditu, eta horrek zaila egiten dio bere ingurunea jasatea. Gizarte langilearen eginkizuna da gaixoa eta haren giroa ahalik eta egokien egokitzea (Silva Cardona et al., 2015).

Gaixotasunaren arlo garrantzitsu bat da eremu familiarra eta gizarte lana ere, gizarte langileak eremu horretan esku hartuko du. Norbanako batek parte hartzen duen eta dituen laguntza sareen barruan, familia da, testuinguru kulturalaren eta historikoaren arabera eratzen den modu desberdinetan garrantzitsuena, edo, gutxienez, agerikoena pertsona gehienentzat. Laguntza sistema den aldetik, era askotako baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen die pertsonari, hala nola gizarte konpainiari, laguntza emozionalari, gida kognitiboari eta aholkuei, gizarte-erregulazioari, laguntza materialari eta zerbitzuei, eta kontaktu berrietarako sarbidea. Hala ere, familia, aldi berean, segurtasunik ezaren iturri garrantzitsua izan daiteke, bai kanpoko tentsioengatik, bai barruko harremanengatik, eta horrek oso kaltetsua bihurtu daiteke gaixotasunaren krisietan (Gómez, 2009).

Familiaren funtzionaltasuna faktore erabakigarria da osasunaren edo gaixotasunaren garapenean. Familia-dinamikaren funtzionaltasun terminoak bost alderdi hartzen ditu barnean:

- Egokitzapenak azaltzen du familia barruko eta kanpoko baliabideak erabiltzeko gaitasuna, guztien ongia lortzeko eta elkarren laguntza premia garaian emateko, bai eta lagunen edo sare sozialen laguntza ere.
- Parte-hartzeak, familiako kideen arteko erantzukizunen banaketa deskribatzen du, hainbat gairi buruzko arazoak eta erabakiak solidarioki partekatuz (finantzak, zaintza

- medikoa eta arazo pertsonalak);
- Hazkundeak, familiako kideen heldutasun emozionalari eta fisikoari, autorealizazioari eta elkarrekiko laguntzaren bidez duten erreakzioari egiten die erreferentzia;
 - Afektuak, familiako kideen artean dagoen zaintzaren eta maitasun adierazpenaren, minaren eta haserrearen arteko harremana zehazten du (Casanova-Rodas et al., 2014).

Familiaren laguntza oso garrantzitsua da buruko nahasmendu larria duten gaixoengan, baina baliteke senide zaintzaileen gaitasun egotea. Gizarte langileak esku hartu ahal izango duen eremua izan daiteke, familia gatazkak, gizarte isolamendua eta bakardade sentimendua saihesteko eta, horrela, gaixotasunari aurre egiteko estrategiak hobetu ahal izateko, familia batasuna mantentzeko eta gaixoarentzako gune terapeutiko bat eratzeko. Familiaren ongizatea zuzenean lotuta dago pazientearen bilakaerarekin; izan ere, senideen bizi kalitatea hobetzeak pazientearen egoera hobetzea ekarriko luke, eta berdina beste modura, pazientearen bizi kalitatea hobetzean, familiaren egoera hobetzea ekarriko du. Gaur egun, hainbat jardura azpimarra daitezke profesional bezala, aholkularitza, gaixotasun mentalei buruz, eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa... gaixoen eta haien familia ingurunearen bizi kalitatea hobetzeko (García Fernández, 2012).

2.5. OSASUN MENTALA ETA ALDAGAI SOZIALAK

Badaude osasuna definitzen dituzten hainbat faktore. Gizarte faktoreei buruz hitz egiten dugunean generoa, etnia, klase soziala, bizilekua edo adinari egien diogu erreferentzia. Testuinguru soziala eta ekonomikoak rol nagusi bat betetzen du pertsonen osasun egoeran, nahiz eta faktore bitartekarien bidez egiten duen. Adibidez, pertsona talde baten estatus sozioekonomikoa neurtzen denean eta osasun arazoan agerpena ebaluatzean jarraipena egiten denean, gaixotasunak maila baxuetan dauden pertsonetan agertzen da gehien. Kausa sozial horiek zeharka jarduten dute, gizartean modu desberdinean banatzen diren bitarteko determinatzaile espezifiko bidez. Osasunean ere faktore biologikoak, sozialak edo psikologikoak faktore gisa identifikatu behar dira (Álvarez Castaño, 2009).

Hainbat ikerketak lotura positiboa hautematen dituzte zahartze kognitiboari eta hazkuntza mailaren artean, eskolatzaren kalitateak eta iraupenak eragin zuzena dutela funtzionamendu globalei eta erreserba kognitiboan. Meléndez Moraleen arabera berak egindako azterlan baten arabera, adin handieneko eta eskolatzeko urte gutxiagoko subjektuek arrisku handiagoa dute hondatze kognitibo diagnostikorako inklusio irizpideak betetzeko. Horrez gain, eskolatzeko

Gizarte sareek osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duen eragin soziala

urteek korrelazio bat dute pertsona batek garatzen duen lan jarduera motarekin eta ere kontuan hartzen da hondatze kognitiboa agertzerako orduan. Funtzionamendu kognitiboarekin lotuta aztertu den beste aldagai batzuk arlo sozialean, aisialdi denbora da. Bizimodu aktibo bat izateak, bai jarduera kognitiboak (irakurri, margotu edo idatzi), jarduera fisikoak (kirolen bat egin) eta jarduera sozialak (talde baten parte izan, komunitatean parte hartzeko aukera), erregulartasunez praktikatuta narriadura kognitiboa atzeratzeko aukera dute (Cancino & Rehbein, 2016).

Osasunaren gizarte-baldintzatzaileek, osasun-sistemaz gain, pertsonak jai, hazi, bizi, lan egin eta zahartzen diren inguruabarrak hartzen dituzte barnean, eta osasun-arloko desberdintasun asko azaltzen dituzte. Osasunaren determinatzaile sozialak zaintzeko sistemak osasunaren ikuspegi integrala eta soziala eskatzen du.

Adineko helduek laguntza konexio sozialak eta gertuko harreman pertsonalak baliatzen dituzte, baina harreman pertsonalen hausturaren eta bakardadearen ondorioz sufritzen dute. Osasun mentala eta biztanleriaren ongizatea gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira osasunaren, ikaskuntzaren, produktibitatearen eta gizarteratzearen iturri nagusi gisa. Adinekoen bizi kalitatea, hein batean, osasunari buruz duten pertzepzioaren araberakoa da. Askotarikoak dira denboran zehar hedatu diren faktoreak, biztanleria-talde horren osasun mentalari eta bizitzaren gogobetetzeari buruzkoak; horien artean dago autopertzepzioa, adinekoaren osasun-egoera ezagutzeko adierazle erabilgarri eta egokia bihurtu dena (Zambrano Calozuma & Estrada Cherres, 2020).

Pertsona horien egokitasunik eza jarduerarik ezak eta kontaktu sozialen galerak eragiten dute. Zahartzaroarekin batera, ezinbestean, galera fisikoak eta mentalak gertatzen dira, bai eta gabezia ekonomikoak, afektiboak eta lagunartekoak ere, eta horrek eragina du helduaren bizi-kalitatean. Osasun mentalaren autopertzepzioa ekarpen garrantzitsua da haien osasun egoeran; bizi-kalitateak, beraz, alderdi fisikoak, afektiboak eta sozialak hartzen ditu barnean (Zambrano Calozuma & Estrada Cherres, 2020).

Badaude helduetan osasun mental arloan ematen diren gaixotasun mota asko. Depresioa, eskizofrenia edo trastorno afektiboak errepikatzen dira gehienetan. Orain, depresioa definituko da, horrela analisisian aztertu diren kontzeptu batzuk hobetu ulertu ahal izateko.

2.5.1. Depresioa

Depresioa agertzearen ondorioak asko dira. Osasuna baldintzatzen duten faktoreak azaldu ditugun bezala, osasun mentalean berdina da. Ez dago faktore bat bakarrik gaixotasuna agertzen laguntzen duena, baizik eta hainbat faktore dira hori sortzen duena.

Depresioaren eta gizarte-babesik ezaren arteko lotura aspaldi deskribatu da. Tradizionalki, gizarte-babesak sare sozialaren tamaina eta osaera, gizarte-kontaktuen maiztasuna eta gogobetetzea eta babes emozional eta instrumentala hartzen ditu kontuan. Beraz, badirudi sare sozial ahul bat depresioaren bilakaeraren pronostiko okerragoarekin lotzen dela, batez ere gizonen kasuan, eta litekeena da depresio horrek heldu nagusiaren aldetik konpromiso sozial txikiagoa bultzatzea.

Depresioa hirugarren adinekoengan konplexutasun handiena duen buru-nahasmenduetako bat da. Hainbat faktorek laguntzen dute horretan; besteak beste, funtzio kognitiboen murrizketa eta bizi-gertaera kaltegarrien presentzia nabarmentzen dira. Aldi berean, bizitzako azken etapan sufrimendu emozionalaren kausarik ohikoena izan ohi da. Adineko pertsonengan depresioa ezkutatzea kexa somatikoak, mina edo antsietatea egoteagatik gertatzen da, eta ñabardura hipokondriakoa nabarmenagoa da. Egoera depresiboaren gain ere ohikoagoak dira erruaren, jazarpenaren eta ukazioaren edukiak. Tristura-sentimendua bera helduarokoa baino intentsitate txikiagokoa izaten da, eta haren egoera afektiboa antsietate-kopuru handiagoarekin kutsatzen da (Aguilar-Navarro & Ávila-Funesa, 2007).

Distimiari buruzko informazioa garrantzitsua da ere aipatzea. Depresioarekin alderatuta, distimiak denbora faktore garrantzitsua eskatzen du, bi urte baino gehiagoko depresio diagnostikoa. Diagnostiko hau duten pazienteek, beren eboluzioan zehar, depresio gertakari eta fase handiagoak izan ditzakete eta hau “depresio bikoitza” deritza. Sintoma ohikoena gaixotasun honetan gogo aldarte deprimetua izatea da eta etengabe agertzen dena (Florido et al., 2023).

2.6. BIZI KALITATEA ETA GAIXOTASUNA

Aktiboetan oinarritutako osasunaren sustapena bereziki baliotsua da gizartean botere gutxien duten pertsona taldeentzat, hala nola gaixotasun mental larria diagnostikatutakoentzat, estigmak eta norberaren bizitzari buruzko erabakitzeko ahalmenik ezak eragiten dietenak, osasunean eta bizi kalitatean eragin negatiboa dutenak. Pertsona

Gizarte sareek osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duen eragin soziala

horientzat harreman pertsonal iraunkorrek onuragarriak dira, konfiantzan eta botere berdintasunean elkarreaginean oinarrituta (del Cura Bilbao & Sandín Vázquez, 2022).

Bizi kalitatearen bi eredu daude. Batek gizabanakoaren gogobetetzean oinarritutako neurriak erabiltzen ditu, besteak beste, harremanak, familia, jolas jarduera eta osasuna adibidez (Argermeyer eta Katsching, 1997). Pertsonak berak ongizate globalaren eta bizitzarekiko gogobetetzearen sentimenduari buruz duen pertzepzio subjektiboa da. Beste ikuspegia neurri zabaletan oinarritzen da, besteak beste, funtzionamendua, diru-sarrerak, enplegua, bizitegi-estatusa eta abar. Subjektuaren funtzionamenduaren eta egokitzapenaren alderdi objektiboak hartzen dira kontuan bizi eremu guztietan. Oro har, akordio baten arabera, bizi-kalitateak pertsonaren ongizatea islatu behar du, bai haren kontsiderazio objektiboan, bai subjektiboan. Bestalde, gaixotasun mental larria duten pertsonak tamaina txikiko gizarte sareak izaten ohi dituzte, eta gizarte laguntza familiaren eremura mugatuta egon ohi da. Horregatik, arlo horretan esku hartzeaz gain, garrantzitsua da programen bidez laguntza espezifikoa zuzenean ematea, batez ere sare sozial txikiak eta ez oso anitzak dituzten inguruneetan bizi diren pertsoneri (Navarro Bayón et al., 2008).

Beharrezkoa da autozainketaren garrantzia azpimarratzea, buruko gaixotasuna duten pertsonen arreta, beste kolektibo batzuetan baino gehiago, batez ere gaixotasunaren kontrolean zentratu baita. Orem-en arabera, nor bere burua zaintzea da pertsonen beren denboraren arabera eta beren kabuz egiten dituzten jarduerak, bizitzen jarraitzeko, osasuna mantentzeko, garapen pertsonala luzatzeko eta ongizateari eusteko. Gure ustez, autozainketa sustatzeak ezagutza bereganatzea eta laguntza instrumentala ematea eskatzen du, ingurunera egokitzea errazteko tekniken eta teknologiaren proportzioaren bidez (Cruz Ortiz et al., 2011). Hainbat kontzeptu garrantzitsuak aipatu behar dira:

- Bizi baldintzak

Ikuspegi horretatik, bizi baldintza pertsona batengan objektiboki neur daitezkeen bizi baldintzen puntuazioen baturaren baliokidea da, hala nola osasun fisikoa, bizi baldintzak, gizarte-harremanak, jarduera funtzionalak edo okupazioa. Definizio mota horri esker, pertsona bat beste batekin alderatu ahal izango litzateke adierazle objektibo hutsetatik; hala ere, badirudi adierazle horiek bizi baldintza baino kopuru gehiago adierazten dutela (Hollanflsworth, 1988).

Mota honetako definizioek hainbat arazo dakarte. Alde batetik, ez dago bizi baldintzak on edo egoki baten parametro unibertsalik, ebaluatzeko erabiltzen diren estandarrak desberdinak

baitira gizabanakoen eta gizartearen arabera. Bestalde, eta Edgertonek (1990) aipatzen duen bezala, independentzia egongo litzateke bizi baldintzen eta ongizate gertaera subjektiboen artean, bizi baldintza objektiboek azaldutako bariantza kopuruari buruzko azterketek eta diru-sarrerara handienak dituzten herrialdeek nahitaez bizi baldintza maila handienak ez dituztela egiaztatzen duten etengabeko egiaztapenek erakusten duten bezala, hori herritarrek beraiek ebaluatzen dutenean. Gainera, ongizate globala baliabide propioen mende ez ezik, ongizate pertsonala oparoa den giro soziopolitikoaren mende ere egongo litzateke (Shen & Lai, 1998). Lefleyren ustez (1998), bizi baldintza esanahi kultural, ekonomiko, sozial eta politikoaren kontzeptu inbutua da. O'Boylek (1994) planteatzen du ebaluazio objektiboak onartzen duela osasuna, ingurune fisikoa, diru sarrerak, etxebizitza eta beste adierazle behagarri eta kuantifikagarri batzuk bizi baldintzen neurketa baliodunak direla eta estandarrak direla; hala ere, irizpide objektibo horien eta hautemandako bizi baldintzen arteko lotura konplexua eta aurreikusten zaila izango litzateke (Urzúa M & Caqueo-Urizar, 2012).

- Gogobetetze pertsonala

Esparru horretan, bizitzarekiko gogobetetzea, gogobetetze pertsonalaren sinonimotzat hartzen da. Horrela, bizitza poztasunaren batura litzateke bizitzaren eremu ezberdinetan. Definizio mota horren kontrakoak ere badira; izan ere, ongizate subjektiboari interes gune nagusia ematean eta kanpoko bizi baldintzak alde batera uztean, norbanako bat da, bere testuinguru ekonomikotik, sozialetik, kulturaletik, politikotik edo bere osasun egoeratik abstraitzeko gai dena, adibidez, gogobetetze pertsonala lortzeko. Hala eta guztiz ere, gogobetetzea banakako ebaluazio bat dela onartzen den arren, non erreferentzia esparrua pertsonala den, ezin da ahaztu ebaluazio hori egoera jakin batean dagoen pertsona baten esperientziak eta iritziak eragiten diotela. Horri dagokionez, Jenkinsek (1992) planteatzen du gaixotasun mentala duten pazienteen erantzunak idealki isla dezaketela haien egungo egoera fisikoa, psikologikoa eta soziala, eta erantzun horiek igurikimen indibidualek, desio pertsonalek edo egoera mentalak neur ditzaketela. Ebaluazio horretan, ohiko akatsak sor daitezke, pertzepzio distortsioak, ilusioak eta aurreiritzitako erantzunak direla eta, nork bere burua babesteko metodologiak erabiltzeko mugak direla eta. Jenkinsek ondorioztatu du gogobetetze pertsonalaren ebaluazioa fenomeno behagarri edo deskriptibo espezifikoetan oinarritu behar dela, eta kontuz ibili behar dela haztapen pertsonalen erabilerarekin; izan ere, medikazioak, funtzionamendu kognitiboak edo emozionalak eta bizitza hobetzeko motibazioek aurrez epaitu ditzakete. Pazienteak bere bizitzako eremuetan defizita duela eta aldatzeko motibazioa duela aitortu ezean, gogobetetze pertsonal handia izango du (Urzúa M & Caqueo-Urizar, 2012).

2.7. FAMILIA, ZAINTZA, GAIXOTASUNA ETA GIZARTE LANEKO ESKU HARTZEAK

Familiako zaintzailea egunero gaixoa zaintzeaz arduratzen den senitartekoa eta/edo hurbila da, trukean konpentsazio ekonomikorik jaso gabe, eta familiako eta/edo laneko beste zeregin batzuez arduratzen da. Zaintzaile formalek edo profesionalek zuzenean zaintzen dute, prestazio ekonomiko jakin baten truke. Buruko gaixotasun larriak dituzten pertsonak emakume batek zaintzen ditu, batez ere gaixoaren amak, eta, neurri txikiagoan, emazteak edo alabak. Gainera, emakume zaintzaile horiek ez dute inolako prestazio ekonomikorik jasotzen lan horrengatik.

Familian gaixotasun mentala duen pertsona bat egoteak familiako kide guztiak ezegonkortzen ditu. Pertsona horiek zaintzea lan konplexua da, eta ahalik eta arreta onena emateko asmoz, askotan, zaintzaile nagusiak bere osasuna alde batera uzten du. Gainkarga hori agertzen da zaintzaren ondoriozko etengabeko estresak eragindako higadura fisiko edo psikologikoa oso kuota handietara iristen denean, eta, azkenik, egoera horren gaineko kontrola galtzen delako sentazioa sortzen denean. Gainkargak arazoak eragiten dizkie zaintzaileei osasun mentalean eta fisikoan, ekonomian, lanean eta familia eta gizarte harremanetan. Hori guztia, gainera, askotan gertatzen da zaintzaileak egoera horiei aurre egiteko informaziorik eta/edo prestakuntzarik ez duen testuinguru batean (Piñeiro et al., 2017).

Egoera horretan, familiak arduratu behar dira gaixoa zaintzeaz eta laguntzeaz, eta hainbat egoerari egin behar diete aurre. Egoera horiek gainkarga eragiten diete beren kideei, eta ondoez eta sufrimendu sentimenduak izaten dituzte maiz. Gaur egun, buru nahaste larria duen pazientearen familiak parte hartzen duen interbentzio gehienen helburu nagusia errehabilitazioa eta gaixoaren berrerortzea prebenitzea da, eta ez daude hain zentratuta osasuna bultzatzean edo familiako gainerako kideen parte hartzea sustatzean. Horrek esan nahi du ez direla jabetzen pazientearekin bizi diren senideek jasaten duten inpaktuaz (Martín Padilla et al., 2018).

Zaintzailearen lan gainkargak aldaketak eragiten ditu familia harremanetan, lanean, ekonomian, aisialdian, osasun egoeran eta aldarlean. Egoera hori maiz gertatzen denean, eguneroko borroka bihur daiteke heldu nagusiaren gaixotasunaren aurka, pertsonaren erreserba psikofisikoak agor ditzaketen zeregin monotono eta errepikakorrek direla eta, helduaroarekiko jarrera eta sentimendu negatiboak garatzera eramanez. Lanaren gainkargak ondorio fisiko eta mentalak eragin diezazkioke zaintzaileari. Ondorio horiek oharkabean

pasatzen dira heldu nagusia zaintzeko arduragatik, zaintzailearen osasuna eta zaintzeko beharra alde batera utzita (Silva Fhon et al., 2016).

Hala ere, zaintzailearen rolaren ondorio positibo batzuk ere deskribatu dira, hala nola gogobetetasuna eta maisutasuna, eta baita bizitza luzeagoa izatea. Gogobetetzea plazer sentimenduei dagokie, laguntzeagatik eta zainduari lotuta sentitzeagatik gozatzeari, eta maisutasuna, berriz, zaintzaileak bere buruarengan duen konfiantzari eta kalitatezko asistentzia eskaintzeko duen gaitasunari.

Egoera horietan, gizarte laguntza ere garrantzitsua da, hala nola laguntza emozionala, enpatiak, zaintzak, maitasunak, konfiantzak osatzen baitute, eta badirudi garrantzitsuena dela. Laguntza instrumentala behar duen norbaiti laguntzea izango litzateke, lan bat amaitzen laguntzea ere (Pérez Peñaranda et al., 2009).

Emakumeek gizonek baino ginkarga handiagoa dute, bai eta osasun psikiko eta fisikoan eragin handiagoa, eta orain arte ez dago ondo ezarrita osasunaren gaineko eraginean dauden aldeak azaltzen dituen mekanismoa. Gaixo mentalen zainketen ondoriozko karga identifikatzea zerbitzu psikiatriko komunitarioen ikerketaren zati integrala da oraindik ere (Montero et al., 2004).

Zaintza informala honela definitu da: familiak, lagunek, bizilagunek edo beste pertsona batzuek mundu pribatu batean etxe barruan zaharrei, gaixoei eta mendekoei ematen dizkieten zainketak; harreman afektiboetan, ahaidetasunean, "familia arazoetan" eta "generoan" oinarritzen dira, eta ezaugarri horiek gizartearen ikusgarritasunean dute eragina. Beraz, ez da onartzen merkatuan preziorik ez duen lan ordaindu gisa, balio gabeziarekin nahasten baita, denbora-muga ezagunik gabe. Emakumearen ekarpen ekonomikoa gutxietsi egin da. Kontzientzia kolektibo kulturalak ezartzen du "zaintza" amatasunezkoa den zerbaitekin lotuta dagoela, eta ugalketa rolaekin lotzen du. Beraz, naturalizat hartzen da; genero femeninoaren ikusezintasun horrek zaildu egiten du zaintza informalean eta paradigma berri bateranzko aldaketan. Emakume eta gizonen arteko zaintzaileen banaketan eta zaintzan genero femeninoaren presentzian dagoen karga bereizia egitate bat da, baina horrek ez du esan nahi zaintza eskusiboki emakumeek egiten dutenik. Emakumeak bere gain hartzen du zaintza konpromiso moral, natural gisa, afektuak markatuta, sozialki kostu altu bati lotuta, erantzukizun gisa definituta, ezarritako zeregin gisa, baloratu eta ordaindu gabeko betebeharrak zehagarri gisa. Genero maskulinoan, berriz, zaintza aukera bat da. Zeregin horien garapenari

Gizarte sareek osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duen eragin soziala

eta horrek berekin dakarren genero joerari buruzko balorazio sozial desberdina dagoela nabarmentzen du horrek; hala eta guztiz ere, eta osasun sistemaren barruan genero femeninoaren ekarpen baliotsuari dagokionez, mendeko gaixoaren eta osasun sistemen arteko bitartekaritza funtzioa betetzea ikusezinak dira, eta zaintza horiek bere gain hartzen ez direnean baino ez dira ageriko egiten (Vaquiro Rodríguez & Stiepovich Bertoni, 2010).

Sare informaleko zaintza lana ematen duten pertsonen eskuragarritasuna funtsezkoa da produktibitatea eta ugalketa erantzukizunak uztartzeko aukera zaintzaile gehienentzat. Etxetatik kanpo lan egiten duten zaintzaileentzat oso garrantzitsua da bigarren mailako beste zaintzaile batzuen laguntza, normalean familiako beste emakumeen laguntza, bere zeregin hori bete ahal izateko (García-Calvente et al., 2004).

3. METODOLOGIA

Ikerketa aurrera eramateko, hainbat elkarrizketak egingo dira. Haien bitartez, gizarte sareak duten garrantzia aurkeztuko dira eta horrekin batera gaixotasun mentala dituzten pertsonetan gertatzen diren ondorio sozialak aurkeztuko dira. Metodologia kualitatiboak elkarrizketatzen dugu pertsonen diskurtsoa entzuteko gaitasuna ematen du eta pertsona bakoitza gaixotasunarekin izan duen bizipen pertsonala garrantzitsua da entzutea. Gainera, oso zaila da metodologia kuantitatiboarekin adibidez bizi kalitatea edo gizarte mendekotasuna neurtzen dituen baremo edo zenbakiak ezartzea besteak beste. Garrantzitsua da pertsona horiek haien bizipenak adierazteko tarte eta espazioa ematea eta ere elkarrizketan garatu daitezkeen sentimenduak ikusi eta behatu ahal izango baitugu.

Guztira zortzi elkarrizketa egin dira. Bi elkarrizketa egin zaizkie bi gizarte langileri, kasu honetan San Francisco Javierren dagoen eguneko ospitale psikogeriatrikoko gizarte langileari eta Nafarroako eguneko ospitale psikiatrikoko gizarte langileari. Beste bost elkarrizketak zentro horietara trastorno mental larriko diagnostikoa duten pertsoneri egin zaizkie. Ahalegina egin da diagnostikoa desberdina izatea elkarrizketatutako pertsonak eta gaixotasunaren bilakaera desberdina izatea ere. Nire tutoreekin hitz egin dut ea ze pertsonak elkarrizketatu, bai bere diagnostikoa eta bere historikoa kontuan hartuta.

Ospitale psikogeriatrikoan, diagnostiko desberdina duten emakumeak hartu ditugu eta ere bizitza historikoak oso desberdinak dituzten pertsonak. Kasu honetan, errekurtsua 60 urte baino gehiagoko pertsoneri zuzenduta dagoenez, elkarrizketatutako pertsonen adina antzekoa da. Eguneko ospitale psikiatrikoko kasuan, nik hasieratik ezagutu izan ditudan pertsonak erabaki ditugu (ospitalera heldu ziren lehenengo egunean ezagutu nituen). Kasu honetan, bakoitza adin desberdina dauka, beste perspektibak ikusi ahal izateko.

Hainbat kide familiarrekin elkarrizketa egitea nuen buruan. Benetan lehenengo pertsonan ezagutzeko beraiek izan ahal duten karga. Gainera, beraiek dira pertsona hauen zaintzaile nagusienak normalean eta oso garrantzitsua da niretzat ezagutzea. Hau egitea ezin izan dut egin. Eguneko ospitale psikiatrikoaren kasuan, ez dutelako zentrotik ia jarraibide familiarrik egiten. Gizarte langileak bakarrik familiarekin lehenengo egunean egoten da baina normalean ez dute familiarekin eskua hartzen. Eguneko ospitale psikogeriatrikoan, familiarekin esku hartze gehiago egiten dute, baina nire tutoreekin hitz egin ondoren erabaki genuen ez zela ideia ona, beraiekin erlazio gutxi nuelako eta bakarrik pazienteei egitea erabaki genuen.

Gizarte sareek osasun mental arazoak dituzten pertsonen ongizatean duen eragin soziala

Horregatik, beraien bitartez hau ikertuko dut gai hau galderen bitartez.

